

# URAKANAK ETA GU

 Mikel Soto

Honako lerro hauek, *Azken patriarka* eleberrirako hitzaurre eder baten hasiera izan zitezkeen:

«Bat batean dena hankaz gora jarri zen. Hautatu ez genituen hiru urakanek dena aztoratu zuten.

Lehen urakana modernitatea izan zen, etxeetan eta gure gustuetan sartu zena eta janzteko; ilea eramateko; aspal-diko tatuajeetatik, behin-behineko henatetik edo gure amonek xehatu berria zuten khol-etik haratago gure irudia moldatzeko era berriak aurkituarazi zizkiguna.

Bigarren urakana emigrazioa izan zen, herri osoak europar lurralde ezezagunetara eraman zituen. Han, ezerezetik sortuak izan bagina bezala pentsatu beharko genuen berriz, harriak xehatu beharko genituen sustraiak ulertzeko eta libreki erabakitzeke, oraingoan ustez bai, nola nahi genituen pieza guzti hauek elkartu: tradizioa, feminitatea, erlijioa, demokrazia eta gustua eta estetika, noski.

Oraindik ez geunden horretan pentsatzen hasita hirugarren urakana heldu

zenean, beldurrarena, kontrizionarena, gure aldaketa nahiak galgatzeko eskatzen ziguna. Erdipurdiko telesermoilari ilunen ahotan –nahi duzuen bizar guztiarekin, hori bai– esaten diguna gure erlijioaren biziraupenaren arriskua, guk nahi ala nahi ez, gu geu ginela eta, batez ere, gure gorputzak».

Baina lerrook ez dira inolako hitzaurreren parte. Liburuaren egile den Najat El Hachmik, Nizako hondartza batean, frantziar polizia batek emakume bat biluztera behartu zuenean idatzi zuen «El nostres cossos, nosaltres decidim» artikulutik ateratakoak dira. Hala eta guztiz ere, Sisiforen harrian zizelkatuta baleude bezala, lerro horietan eleberrian aurkituko ditugun gai guztiak presente daude: tradizioa, erlijioa, modernitatea, emakumeen gorputza, emigrazioa, matxismoa, biolentzia, patriarkatua... Idazle katalanaren idazketa-estiloa ere hortxe dago: hizkuntza urratu, umoretsu, zehatz, iradokitzaile gordin bat.

*Azken patriarka* eleberririk Marokotik Kataluñaara emigratu duen Mimoun Driouchen istorioa bere alabaren begie-

tatik kontaktzen digu. Haren eskutik aita-zen izaera tormentatua ezagutuko dugu; bere izaera autoritario eta zaharkituak sortarazten dizkion talka etengabeak. Izan ere, pertsonaia gorrotagarria da Mimoun: matxista, liskarazalea, zurruteroa, bortitza, jeloskorra... Sarritan besoak liburuan sartu eta zerri horren lepoa estutzeko gogoia ematen duen pertsonaia horietariko bat da Mimoun. «Mirarizko» pribilegioen eskutik Driouch familiaren patriarkak edan ahal izango du, ezkondu aurretik zein ondorengo beste emakume batzuekin oheratu ahal izango da, maitaleak izan, nahierara jantzi, edonora joan... Eta, aldiz, patriarkatu ahalguztidun horrek berak bortizki debekatuko die haren emazte edo alabari berak posible dituen guztiak.

*Azken patriarka* eleberri gogorra da, latza eta garratza, irakurlea interpelatzen duen horietarikoa eta, batez ere eta... eskerrak!, barruan geratzen den horietarikoa. Ez nau harritzen, beraz, 18/98ko epaiketaren bidegabeki zigortua izan ondorengo, kartzelan emandako urte luzeetan, Jexusmari Zalakainek, gatibualdiak em-

ten duen pazientziaz hornitua, Najat El Hachmiren eleberrri ederra itzuli izana. Ikusi dugunez, liburua argitaratu osteko ezusteko arrakasta apartsutik landa (Ramon Lull saria eta Prix Ulysse sariak irabazi eta hainbat hizkuntzatarara itzuli zuten), idazleak ibilbide oparoa egin duen arren, errealitatea geldoagoa da, egoskorra da, tinkoa. Lurrazpiko sustraiei heltzen die, erauziko duen urakaren zain. Baina, tai gabe, urakan berriak heltzen dira, eta sustraiak aztoratzen dira, mugitzen dira, gurutzatzen dira. «El nostres cossos, nosaltres decidim» artikulua amaieran idazle katalanak dioen bezala: «Haiei, gizezkoiei, inork ez die arropa kenduko, ezta ere nola jantzi behar duten esango. Odolak irakiten digu eta hain solidoa uste genuen hori aldatzen da, berriro guztiak barne hartzen gaitu, estaliak eta desestaliak, guztiaren gainetik emakume izatearen *gua da*».\*



## liburu gomendatua

ABENDUA

## Najat El Hachmi

# AZKEN PATRIARKA

*Azken patriarka* eleberririk Marokotik Kataluñara emigratu duen Mimoun Driouchen istorioa kontatzen digu, bere alabaren begietatik. Haren eskutik aitaren izaera tormentatua ezagutuko dugu; bere izaera autoritario eta zaharkituak sortarazten dizkion talka etengabeak. Izan ere, pertsonaia gorrotagarria da Mimoun: matxista, liskarzailea, zurruteroa, bortitza, jeloskorra... Sarritan besoak liburuan sartu eta zerri horren lepoa estutzeko gogoa ematen duen pertsonaia horietariko bat da Mimoun. «Mirarizko» pribilegioen eskutik Driouch familiaren patriarkak nahi duena egin ahal izango du: edan, ezkondu aurretik zein ondoren beste emakume batzuekin oheratu, maitaleak izan, nahierara jantzi, edonora joan... Eta, aldiz, patriarkatu ahalguztidun horri esker bortizki debekatu die haren emazte edo alabari berak posible dituen guztiak.

Aldaketa  
azaroaren  
25a  
baino lehen



<b>0506050</b>	<b>TXALAPARTA</b>
<b>ELEBERRIA</b>	
400 or.	
Salneurria	19,40 €
<b>Bazkideak</b>	<b>15,52 €</b>

Itzultzailea: Jexusmari Zalakain

EGILEA



**Najat el Hachmi** (Nador, 1979), bere berear jatorriko idazle katalana. Bartelonako Unibertsitate Autonomoan Filologia arabiarra ikasi zuen eta Catalunya Kulturako irratian amazigeraz albistegi bat izan zuen. 2004an, *Jo també sóc catalana* saiakera idatzi zuen eta, lau urte geroago, 2008an, bere lehen nobelak, *Azken patriarka*, Ramon Lull saria irabazi eta berebiziko arrakasta izan zuen. Geroztik, *La caçadora de cossos* eta *La filla estrangera* liburuak argitaratu ditu.

Edited with the demo version of  
Infix Pro PDF Editor



To remove this notice, visit:  
[www.iceni.com/unlock.htm](http://www.iceni.com/unlock.htm)